

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua garatzeko hainbat baliabide behar ditugu, talde ezberdinetan banatzen direnak, hala nola; baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta giza- eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokienez, hainbat giltzarrapo beharko ditugu gure proiektuaren oinarria baitira. Baita giltzarrapo horietan kokatuko ditugun eta hatz marka irakurriko dituzten sentsoareak beharko ditugu ere.



Bestalde, gure ideiak eta jakintza-maila erabili beharko dugu, hau da, baliabide intelektualak, beraz, bakoitzari paper bat egokituko diogu. Esaterako, Mainerren sormena erabiliko dugu proiektua gauzatzeko eta horretan hobekuntzak egiteko. Garoak bezeroekin tratatzeko dituen erraztasunak baliatuz, salmentarako arloan arituko da. Cristinak dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak aprobetxatuko ditugu eta azkenik, Miriamen antolaketarako abileziak erabiliz, jarduerak antolatuko ditugu. Miriamek bere garajea lokal moduan utziko digu ere bai. Gainera, hor dituen eguzki plaketatik argindarra erabili ahal dugula esan digu.



Finantza-baliabideak direla-eta Crowdfunding sistema erabiliko dugu. Modu horretan, gutxi gorabehera zenbat ekoiztu behar dugun eta arrakastarik izango duen inguruan ideia bat egin dezakegu. Gainera, gure aurrezkiekin ez denez nahikorik izango, beste batzuen laguntza eukiko dugu sistema honi esker.